

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

**Brad Mehldau, Cécile McLorin Salvant, Noa,
Bill Frisell, Mulatu Astatke, Gonzalo
Rubalcaba, Sílvia Pérez Cruz eta Kenny
Barron izango dira, besteren artean, 56.
Jazzaldiko programan**

**Jaialdia uztailaren 21etik 25era egingo da eta sarrerak
datozen asteetan jarriko dira salgai**

Zuhur jokatzeko garaia da; baina baita eskaintza kulturala mantentzeko, distantziarekin, kontu handiz eta maskara jantzita elkartzeko, Musikaz gozatzearen.

Hemen aurkezten dugu Donostiako 56. Jazzaldia. Salbuespen guztiekin. Ez dakigu oraindik zeintzuk izango diren edukierak eta ordutegiak, eta ez dakigu denok lekualdatu ahal izango garen nahiera. Oraindik aste batzuk zain egon beharko.

Ondoren aipatzen ditugun artista hauek baieztatu digute jada 56. Jazzaldira etorri nahi dutela. Horregatik, ilusioz dakarzkizuegu haien izenak, jakinaren gainean egon zaitezten.

Emakumezko ahotsen Jazzaldi bat izango da aurtengoa:
Cécile McLorin Salvant bikaina; Noa, pianista donostiar Iñaki
Salvadorrek lagunduta; Buika, sentsuala eta gozoa; Arlo Parks,

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

Londresko sentsazio berria; Aymée Nuviola kubatarra; eta, jakina, Sílvia Pérez Cruz, Farsa Circus Band taldearekin.

Pianisten Jazzaldia ere izango da. Aipatutako Iñaki Salvadorrez gain, izen gehiago ditugu: Italiatik, Franco D'Andrea, musikari transalpinoen dekanororiatsua, eta Giovanni Guidi, Jazz europarraren izar sortu berria; Brad Mehldau jeinua; Kenny Barron ezinbestekoa eta bikaina; Gonzalo Rubalcaba, Karibeko birtuoso gorena; Marcin Masecki poloniarra, moldakorra eta ezustekoa; eta Marco Mezquida, bere proiektu berriarekin, pauso bat gehiago musikaren izartegirako bere goranzko ibilbide etengabea.

Dave Douglas, tronpetista magistrala; Mulatu Astatke bibrafonista eta perkusionista etiopiarra; Dave Holland baxu gailena; Jean Toussaint saxofonista, Art Blakeyren Jazz Messengers-en akademiako dizipulua; Eric Seva saxofonista, *Summit* diskoari eskainitako omenaldi zoragarri batekin, non beren soinuak eta ideiak bat egin zituzten Gerry Mulliganek eta Astor Piazzollak; Naïssam Jalal flautista harrigarria eta Bill Frisell gitarrista dira beste musikarietako batzuk, datorren 56. Jazzaldian gure artean izan eta parte hartuko dutela hitz eman digutenak.

Gainera, musikari espainiar ugari izango ditugu: duela gutxi 19 talde hautatuen zerrenda bat argitara atera genuen, azken hilabeteotan izandako hautaketa-prozesuen ondoren; haiei gehituko zaizkie Jorge Pardo maisua, Niño Joselek lagunduta, Chick Corea oroitzeko; La Locomotora Negra, Kataluniako Jazz taldeen dekanoa,

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus

56 DONOSTIAKO JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
UZTAILA 21-25 JULIO 2021

agurra emateko bere biran; eta JazzEñen parte hartzeko hautatu diren 8 taldeak.

Programazioa gaixotasunak eta bere ondorioek izango duten eboluzioaren itzalean, babesturik, eskaini ahal izatea espero dugu. Zaindu, hala, denon artean, indize madarikatu horiek jaisteko, osasuntsu egoteko, eta horrela, programa honekin gozatu ahal izateko.

Miguel Martín, Donostiako Jazzaldiko zuzendaria

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián

T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus

www.jazzaldia.eus